


Euskal AEko industria-prezioak % 0,3 jaitsi dira 2024ko apirilean aurreko hilaren aldean

2023ko apirilarekin alderatuta, industriako prezioek % 6,2ko jaitsiera izan dute

2024ko apirilean, Euskal AEko industria-prezioak % 0,3 jaitsi ziren aurreko hilaren aldean, Eustatek landutako datuen arabera. Apirileko urte arteko tasak azken hamabi hilabeteetan industria-prezioek izandako aldakuntza jasotzen du, eta % 6,2ko atzerakada izan du.

Azterketa zehatzago batek agerian uzten du, 2024ko apirilean, *Energia elektrikoa, gasa eta lurruna* (% 4,4), *Produktu farmazeutikoen fabrikazioa* eta *Produktu informatiko, elektroniko eta optikoen fabrikazioa* (% 0,7) sektoreek izan dituztela, aurreko hilaren aldean, jaitsierarik handienak prezioetan. Aitzitik, hileko arteko prezioen igoera izan duten sektoreak *Industria kimikoa* eta *Ura* (% 1,3) eta *Kokeriak eta petrolioaren fintzea* (% 1,0) izan dira.

Euskal AEko industria-prezioen indizearen urte-arteko aldakuntza-tasa. (%)



Iturria: Eustat. Industria-prezioen indizea

Ondasunen helburu ekonomikoaren arabera sailkapenari jarraituz, 2024ko martxoarekin alderatuta, *Energiaren* prezioak % 1,2 jaitsi dira. *Kontsumo-ondasunen* prezioak % 0,2 igo dira, *Kontsumo-ondasun ez iraunkorren* prezioak % 0,2 igo direlako eta *Kontsumo-ondasun iraunkorren* prezioak ere % 0,2 igo direlako. Bestalde, *Bitarteko ondasunen* prezioak % 0,2 jaitsi dira eta *Ekipo-ondasunenak* % 0,1 igo dira.

Urte artean, 2024ko apirila 2023ko apirilarekin alderatuta, prezioen jaitsierarik handienak ondoko adarretan izan dira: *Energia elektrikoa, gasa eta lurruna* (% 41,7) eta *Zurgintza, papera eta arte grafikoak* (% 5,7). Aitzitik, urte arteko prezioetan igoera handiena izan duten adarrak ondokoak izan dira: *Erauzketa industriak* (% 10,7) eta *Material eta ekipo elektrikoaren fabrikazioa* (% 8,0).

Euskal AEko Industria prezioen indizea. Aldakuntza-tasak (p). Apirila 2024

	INDIZEA	ALDEAREN %	
		m / m-1	m / m-12
INDIZE OROKORRA	122,8	-0,3	-6,2
SEKTORE-BANAKETA			
Ateratze-industriak	138,6	0,2	10,7
Manufaktura-industria	130,0	0,1	-0,2
Elkadararen, edarien eta tabakoaren industria	131,2	0,0	-1,9
Ehungintza, jantzigintza, larrugintza eta zapatagintza	113,4	0,7	1,2
Zurgintza, papera eta arte grafikoak	140,8	0,3	-5,7
Kokeak eta petrolioaren finitzen	142,0	1,0	1,8
Industria kimikoa	146,6	1,3	-3,0
Botiken fabrikazioa	131,8	-0,7	3,5
Kautxu eta plastikoa, beste produktu mineral ez-metalezkoak	120,7	0,6	-2,3
Metalurgia eta produktu metalikoak	138,9	-0,5	-0,9
Informatikako, elektronikako eta optikako produktuen fabrikazioa	120,7	-0,7	-1,0
Material eta ekipo elektrikoaren fabrikazioa	120,0	0,0	8,0
Beste inon sailkatu gabeko makineriaren eta ekipoen fabrikazioa	116,8	0,0	1,5
Garraiorako materialen fabrikazioa	115,0	0,1	1,6
Altzariak, beste manufaktura-ind., konponketa eta instalazioa	122,1	0,8	0,1
Energia elektrikoa, gasa eta lurruna	78,6	-4,4	-41,7
Ura	136,2	1,3	3,0
INDUSTRIA-SEKTORE HANDIEN ARABERA			
Kontsumo-ondasunak	129,3	0,2	-0,1
Kontsumo-ondasun iraunkorrak	121,1	0,2	13,2
Kontsumo-ondasun ez-iraunkorrak	130,6	0,2	-1,9
Ekipo-ondasunak	120,0	0,1	0,8
Bitarteko ondasunak	134,2	-0,2	-1,3
Energia	105,5	-1,2	-24,5

Oinarria 2015=100

(p)Behinbehineko datuak

m / m-1: Azken hileko (m) aldakuntza-tasa, aurreko hilaren (m-1) aldean

m/m12: Azken hileko (m) aldakuntza-tasa, aurreko urteko hil beraren (m-12) aldean

Data 2024ko Maiatzaren 23a

Iturria: Eustat, Industria Prezioen Indizea

Helburu ekonomikoaren arabera ondasun-talde handien prezioen urte arteko aldakuntza negatiboa izan da *Energian* (% 24,5) eta *Bitarteko ondasunetan* (% 1,3). *Kontsumo-ondasunenak* % 0,1 jaitsi dira, *Kontsumo-ondasun iraunkorrak* % 13,2 igo direlako eta *Kontsumo-ondasun ez-iraunkorrak* % 1,9 jaitsi direlako. *Ekipo-ondasunen* prezioak, aldiz, % 0,8 igo dira.

INFORMAZIO-OHARRA

Eustatek eskerrak eman nahi dizkie lagundu duten establezimendu guztiei, egindako ahaleginagatik. Horiei esker, hilabete honetako indizea laginaren % **93,49ko** estaldurarekin kalkulatu da.

Informazio gehiago:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

C/ Donostia-San Sebastián, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Prensa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tlf: 945 01 75 62